


EDIZIO  
BEREZIA



#### Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Obabakoak**  
Egilea / Autor: **Bernardo Atxaga**  
Saila / Colección: Narratiba, 81  
Irudigilea / Ilustradora: Marta Cárdenas  
ISBN / EAN: 978-84-9746-846-6  
Salneurria / Precio: 27 € (BEZ barne – IVA incluido)  
Orri kopurua / N° páginas: 352  
Formatua / Formato: 16 x 24 cm

#### Egilea / El autor

**Bernardo Atxaga (Asteasu, 1951)** Joseba Irazu Garmendiaren goitizena da. Ekonomia Zientzietan lizentziatu zen eta hainbat lanbidetan aritu izan zen, harik eta, azkenik, laurogeiko hamarkadaren hasiera aldera, literaturari bete-betean ekin zion arte.

Hasiera-hasieratik langile saiatu eta zorrotza izan da (1972an argitaratu zituen bere lehenengo poemak euskaraz, antologia labor batean; 1976an bere lehenengo eleberria argitaratu zen, *Ziutateaz*; 1978an *Etiopia* poema-liburua eman zen argitara...). Barne-mundua bikain erabiltzen du eta, ondorioz, hizkuntza jaso legez euskarak duen adierazkortasunaren eta sendotasunaren erreferentzia saihestezin eta bikain bihurtu da Bernardo Atxaga.

#### Lana / La obra

*Obabakoak* liburua urte askoren emaitza da. Ipuingintzaren tradizio luze eta zabala-  
ren sintesia lortzen du *Obabakoakek*, Poe-  
rengandik XX. mendeko azken ipuinlarien  
lanetaraino: Maupassant, Txekhov, Villiers  
de L'Isle-Adam, Schowb, eta gertuagoko  
Waugh, Quiroga, Rulfo, Cortázar, Borges,  
Singer, Ipar Amerikako ipuin tradizioa, eta  
abar... Ahozko tradiziotik Joxe Arratibelen  
*Kontu zaharrak* eta Auspoa saila. XII. men-  
detik Europa liluratu duen Arabiako tradizio  
paregabea: *Mila gau eta bat gehiago*, Txi-  
natik heldutako *Marco Poloren bidai*a fan-  
tasiatuak, eta abar luzea. Azken finean, lite-  
ratura oso baten hausnarketa eta sintesi  
bat eskaintzen du Atxagak bere liburuan.  
Literatura eta bizitza bera imajinatzeko  
modu bat, begiratu bat. Munduari eta giza-  
kiari erantzuna emateko abiapuntu eta es-  
tilo berezia. Sinbolismoaren eta erroman-  
tizismoaren garaietatik landu eta garatu den  
tradizioa izan da berea ere. Eta, hala ere,  
abangoardiak eta Modernitate ausartenak  
erakutsitako irakasbideei ez die Atxagak  
ukorik egin, horra bost minututan nola ipuin  
bat idatzi lezioa. Literatur tradizio zaharra,  
ahozkotasuna, Modernitatea, zer ez; dena  
dago egilearen eskura eta guztion ondare  
da dagoeneko. Ondare aberats horrekin zer  
egin, horra Atxagaren azierto zoragarria.

ISBN: 978-84-9746-846-6



9 788497 468466

[www.erein.com](http://www.erein.com)

  
erein